

ERRENTERIA / Iturbe Ingenieritza Estudioaren proiektua aukeratu dute liburutegirako

Liburutegi berria egiteko lehiaketara aurkeztu diren 21 proiektuen artean egokiena dela erabaki du Errenteriako Udalak

Jon Gonzalo

Haur eta gazte literaturako liburuei buruzko erakusketadatua Lekuona okindegiaren eraikinean egingo den liburutegi berrirako urrats erabakigarria eman zuen atzo Errenteriako Udalak. Gobernu Taldeko kideek eta kultur teknikariek egindako bileran Iturbe Ingenieritza Estudioaren proiektua aukeratu zuten.

Liburutegi modernoa eta funtzionala nahi dugu, eta Iturbek aurkeztutako proiektuak bi ezaugarri horiek betetzen ditu. Halaber, kultur teknikarien iritzia garrantzia handia eman diegu, haiek oso gustuko dute Iturberen proiektua, azpimarratu zuen Jose Mari Burgos Kultura zinegotziak.

Bi solairu

Lekuona okindegiko eraikinean egingo duten liburutegi berriak bi solairu izango ditu. Guztira, 3.100 metro koadro. Gure herriaren tamainari dagokion liburutegia da, espazio aldetik handia eta irakurketarako atsegina, azaldu zuen Burgosek.

Gaur egun, helduentzako liburutegia eta gazteentzako liburutegia ez daude eraikin berdinean, baina liburutegi berriarekin arazo hori konponduko dute. Bi liburutegiak elkarrekin egotea aurrerapauso handia da. Izan ere, gurasoek eta seme-alabek elkarrekin liburutegira etortzeko aukera izango dute, adierazi zuen Maria Jose Pascual liburutegiko arduradunak.

Irakurketarako plaza

Liburutegi berriaren kanpoaldean plaza berri bat egiteko asmoa du Errenteriako Udalak. Liburutegitik ateratzen den jendeari liburuak aire librean irakurtzeko aukera eman nahi diogu. Horregatik, liburutegiaren kanpoaldean plaza txiki bat eraikiko dugu, eta bertan liburuak irakurtzeko txoko erakargarri bat egiten saiatuko gara, azaldu zuen Jose Mari Burgosek. Halaber, liburutegiak leiho handiak eta argi asko izango duela azpimarratu zuen Burgosek, proiektuaren helburua irakurtzeko gunerik atsegina sortzea baita.

Nolanahi ere, Iturbe Ingenieritza Estudioak gauzatu behar duen proiektu berriari buruzko xehetasunak datozen asteotan jakinaraziko dituzte.